



**EUSKARA, KULTURA, HEZKUNTZA, AISIALDIA INFORMAZIO BATZORDEA**  
**Zeberion, 2012ko urtarrilaren 31n**

**BATZORDEAREN AURKEZPENA**

- Udaletxeko ordezkarien aurkezpena.
- Batzordearen helburua: informatiboa eta parte-hartzailea izatea. Erabakiak hartzerakoan desadostasuna balego, udal-batzara eramango lirateke aldeko txostenak.
- Bertaratutakoak: Udaletxetik: *EAJ*ko Montsi Petralanda eta Roberto González de Etxebarri eta *Bilduko* Txane Urraza eta Nahikari Añibarro; eta Jon Bollar (euskara teknikaria), Esther Calvo, Piedad Idirin, Ainhoa Eiguren Saioa Zubiaur eta Itziar Aranguren.

Zeberioko udaletxeko Batzordeen aretoan Euskara, Kultura, Hezkuntza, Aisialdia Batzordearen bilera egin da **lehenengo deialdian**, arratsaldeko seietan.

Ondoren Jonek hartu du hitza eta Zeberioko 2012ko Euskara egitasmoa eskuetan izanda, puntuz puntu azaldu du.

**1. ZEBERIOKO UDALAREN 2012 URTEKO EUSKARA EGITASMOA**

1. Familia transmisioa: Galtzagorrikoekin egotea komentatu da, gurasoek umeei ipuina kontatzearen aholkuak jendarteratzeko. Bestalde, jaioberriei ematen zaien materiala emateaz gain, erabilgarritasuna topatu behar zaio. Horregatik komenigarria litzateke haurreskola eta eskolarekin harremanetan jartzea.
2. Euskara prestakuntza: Berbalagun hasteko asmoa dago, horretarako kanpaina egin beharko da. Gainera, proiektua martxan jarri behar bada, dinamizatzaileak behar izango dira taldeez aurreratzeko. Printzipioz, herritarren artean saiatuko da dinamizatzaileak bilatzen. Hala ere, inor ez balego prest, AEK-ko mintzapraktika arduradunarekin jarriko gara harremanetan, beraiek bidera ditzaten. Berriro jarriko da herritarren eskura berbalagunen parte hartzeko aukera, eta Zeberioko euskara ikastaroetako ikasleak ere animatu beharko dira.
3. Erabilera Plana: partaide batek Udaleko langile batekin gertatutakoa azaldu zuen: udaletxera deitu eta "*Ayuntamiento de Zeberio, dígame*" erantzun zioten, ondoren, langile honek zenbakiak baino ez zekizkiela esanez erantzun zion. Egoera hau penagarria eta larria da Zeberio bezalako herri batean. Gai honekin jarraituz, bertako langileekin hausnarketa egin eta sentiberatasun eta informazio kanpaina egiteko beharra azaldu da; minimo batzuk eskatuko zaizkie, Udalak euskaraz



funtzionatu behar du eta hori da herritarrek pertzibitu behar dutena.

4. **UEMA**: hasiera baten, ez da argi ikusi, zalantzak agertu dira, batez ere urteko kuota zein den jakinarazi denean. Horregatik, Jonek zenbait duda argitu ditu: UEMako teknikari bat egongo litzateke Zeberio eta beste herri batzuk hartuko zituenak, teknikari horrek azaldu egingo luke mankomunitate honetan sartzeak zer suposatuko lukeen. Komertzio, farmazia edo tabernetan erabiltzen den hizkuntza gaztelania izanik, esparru honetan ere sentiberatasun kanpaina egitearen beharra ikusi da. Gainera, negozio hauek kokatuta dauden lokalak Udalarenak dira, beraz Zeberio Udalak badu zeresana. Bertako hiztegi edo esamoldeekin jartzen diren karteltxoak erabilgarriak lirateke, hala ere herrian erabiltzen den euskararen egon beharko lukete. Honetaz, aipatutako UEMako teknikaria arduratuko litzateke.
5. **AISIA**: edozein ikastaro antola daiteke eta eskatzen den baldintza bakarra euskaraz izatea da.
6. **KULTURGINTZA**: eskolako agenda dela eta, Jon, Nuriarekin (eskolako teknikaria) hitz egitekotan geratu da, agendaren balorazioa egiteko: datorren urteetan egiten jarraitzeak merezi duen ala ez jakiteko. Agenda horretan agertzen diren biografiei dagokienez, egokiagoa litzateke biografia horiek inguruko jendearenak izatea.
7. **KOMUNIKABIDEAK**: Begitu aldizkariari 4 urtetako kuotak (2006, 2007, 2009 eta 2010) zor zaizkio. Egoera ondo aztertu ondoren, Begituri diruz laguntzea erabaki du Udalak: urtean 1.500€, eta horrez gain azken bi urteetako zorraren bi heren ordainduko zaizkio. Hori horrela izanik, aldizkarian Zeberio herria ez dela asko agertzen esan da, eta konponbide bezala, bertako kazetariari, Zeberio elkarte desberdinetako korreo eta telefono zenbakiak emango zaizkio, lana errazteko.

Egitasmo honek 2012ko bukaeran du iraungipen data, hortaz, datozen 3 urteetarako plana diseinatu beharko da. Diagnostiko bat egingo da euskararen erabilera nola/zein egoeratan dagoen aztertzeke. Lan esparruak behatuko dira: zeri emango zaio garrantzia, erabilerari, transmisioari... Eta helburu nagusi bat jarriko da, gehiago jarri daitezke baina txikiagoak izango dira.

Udaberria baino lehen, diagnosi lanetan hasi eta udalbatzak azkeneko hiruhilekoan onartuko du. Batzar horretarako deialdia hilabete barru egingo da: bakoitzaren iritzia batuko da, Ahuleziak Mehatxuak Indarguneak eta Aukerak aztertuko dira. Bide batez, egun berean UEMako teknikaria gonbidatuko da, eta batzar horretan honako hauek egotea komeniko litzateke: kultur elkarte, mendi talde,



guraso, gazte eta jubilatu elkarteko gutxienez pertsona bana eta herrian gai honen inguruan lanean diharduen edo interesa duen edozein pertsona. Tokiko Agendan ere diagnosiaren berri eman beharko da.

Gai honekin bukatzeko, dirulaguntzak jasotzeko aurkeztu den aurrekontuaren berri eman da, teknikariak EJ eta BFaren artean kopuru osoaren %50 eskuratuko dugula aurreikusten du.

### **INAUTERIAK 2012**

Eskolako ekitaldia plazako aterpean egingo da otsailaren 17an eta 16:30 arte izango da. Ondoren umeak beraien eskolara bueltatuko dira gurasoek hartzeko. Egun horretarako ekintzak esateari ekin zaio:

- ⊕ 17:00 inguruan herriko musikariak plazan, giroa animatzeko.
- ⊕ 18:00etan txokolatada; umeek parte hartu ahal dute txokolatea prestatzen, honetarako Guraso Elkartearekin hitz egingo da.
- ⊕ 19:30etan, Austarrik antolatuta, DJ Xaibor egongo da plazako aterpean. Emanaldi honek ordu eta erdiko iraupena du.

Ludotekaren funtzioaz ere galdetu da; egun horretan zer egongo den. Ludotekak ere, beste elkarte batzuen moduan, herriari eskaini beharko lioke antzerkiren bat, hau da programazio bat izatea.

Aratusteak direla eta, Zeberion ez dela egon tradizioz komentatu da, nahiz eta herria mozorrotzera gonbidatu; hala egin baitzuen Austarrik urte baten, oso jende gutxi animatzen da. Ostiral horretan herrian DJ bat izanik, ondo legoke gai bat ipintzea: musikarekin zerikusia duten mozorroak.

### **2. LIBURU EGUNA 2012**

Aurten, apirilak 23 astelehena da. Gai honekin ere hainbat proposamen bota dira:

- ⊕ Ipuin kontalaria: irakur zaletasuna bultzatzeko, ume zein helduentzako.
- ⊕ Liburuen trukea eta salmenta: gutariko edonork etxean irakurrita dituen liburuak saltzeko edo beste batzuekin trukatzeko.
- ⊕ Liburu erakusketa: honek deialdia sasoiz egitera behartzen gaitu.

Saio edo ekintza bi hauek egiteko eguna aukeratzekoan, batzuk aste barruan egitearen alde agertu dira; horrela bertaratuko zen jendea anitza izango litzateke, hori bai, ez litzateke jendetzarik egongo. Beste batzuk aldiz, igandez egitea proposatu dute; jende gehiago hurbilduko litzateke, nahiz eta "betikoak" izan.

Bestalde, Zuhaitz eguna ere aipatu da, baina ez da ospatzea merezi duen eguna; landatzearekin bakarrik ez da nahikoa, gero zaindu egin behar dira, ureztatu... bide batez auzolana bultzatu daiteke.



20:30etan amaitutzat eman dugu bilera hau. Eta bertan jorratu denaren lekukotasuna uzteko, nik, Agurtzane Urraza Zabalak, Idazkari lanetan arituz, Akta hau egin dut.

**Oniritzia**  
**Batzordeburua**

